



# TXIKITTO!

2022ko maiatza 208. zenbakia

**IPURTERRE**  
Ipurterre Aketa

**IPURTERRE:  
IDAZLE-HARROBI  
BIKAINA**



## XXVIII. IPURTERRE IPUIN LEHIAKETA

...eta kitto! Euskara Elkarteak Ipurterre Ipuin Lehiaketaren XXVIII. edizioa antolatu berri du, Eibarko ikastetxeekin elkarlanean. LH eta DBHko ikasleei zuzendutako lehiaketan, aurten, 1.000 ipuin eta gutun inguru jaso ditugu. Ikasle zein irakasleek lan bikaina egin duzue aurten ere, txalotzeko moduko lana. Beraz, irabazleei zoriontzeaz gainera, parte hartu duzuen guztioi ere gure eskerrik beroena helarazi nahi dizuegu, eta idazten eta irakurtzen jarraitzea animatu, Eibarren harrobi ederra daukagu-eta. Urteroko moduan, maiatzeko Txikitto!-ren alea ia osorik eskainiko diogu Ipurterteri. Bertan dituzue aurtengo ipuin irabazleak, zabaldu orriak eta gozatu.

**eta kitto!**  
euskara elkarte

**Argitaratzailea**  
“...eta kitto!”  
Euskara Elkarte  
Urkizu, 11  
20600 Eibar  
Tel: 943 206776

**Erredakzio-  
kontseilua**  
Maidar Aranberri,  
Ana Aizpurua,  
Ekhi Belar eta  
Eibarko ikastetxeak.

**Administrazioa**  
Marisol Uriarte

**Erredakzioa**  
Maidar Aranberri eta  
Ekhi Belar

**Ikusentzunezkoak**  
Yanire Sagredo

**Azaleko argazkia**  
Ana Aizpurua

**Copyright-a**  
Txikitto!

**Lege-gordailua**  
SS-1111/96

**Administrazioa**  
Marisol Uriarte





## Tor magoak magiaz liluratu gintuen sari-banaketan

Zer esango dugu Tor magoari buruz? Etxekoa modukoa dugula, ezta? Urte askoan etorri izan da Eibarrera eta etortzen den bakoitzan aho bete hortz uzten gaitu bere trikimailu zoragarriekin. Aurten ere ez digu kalerik egin eta saio bikaina eskaini zigun Ipurterre lehiaketako sari-banaketa ekitaldian, bertan zeudenen gozamenerako. Aurten berriro ere Unibertsitate Laboraleko aretoan egin zen, eta irabazleak ikaskideez eta irakasleez lagunduta etorri ziren. Zorionak!!!









LH 1-2

PAULE MARTIN (J.A. Mogel Ikastola)

## Sagutxo Perez

Bazen behin neska polit bat etxean zegoena, eta derrepentean hagina jausi zitzaion.

- Ama, hagina jausi zait!
- A ze poza! -esan zion amak-.

Gaur gauean sagutxo Perez etorriko da.

Goiza zenean neskak burko azpian begiratu eta sagutxo Perez hilzorian ikusi zuen. Medikiak esan zion pastila batzuk hartzeko. Osatu zenean aske utzi nahi izan zuen. Baina arazoa zen sagutxo Perez ez zela gogoratzen non bizi zen. Neskaren etxean gelditu zen. Oso oso ondo sendatu zenean gogoratu zen non bizi zen. Mendian bizi zen. Mendira igo eta aske gelditu zen. Hala bazan eta ez bazan, atera dadila Untzagako plazan.





LH 3-4

BITTOR NAVARRETE (J.A. Mogel Ikastola)

## Baloi magikoa

Bazen behin Patxi izeneko gizon bat, altua eta nagusia zen. Patxi Eibarren bizi zen eta fabrika zahar batean egiten zuen lan; narruzko gauzak egiten zituen, poltsak, kartera eta abar. Eibarko herria oso triste zegoen futboleko ekipoa lehenengo mailara bueltatzen ez zelako. Hori zela eta, langileak ideia bat izan zuen:

- Narruzko baloi magiko bat egingo dut!

Lanean ipini eta baloi polit-polit bat egin zuen, urdina eta gorria zen, baloi borobil-borobila. Behin baloia esku artean zuela Arrateko amarengana joan zen baloia magiko bihurtzera.

- Arrateko ama maitea! Bihurtu, mesedez, baloi hau gol-egilea!!!

Baloia hartu eta Ipuruako futbol zelaira joan zen segituan. Bertan, Eibarko entrenatzailea zegoen eta esan zion:

- Baloi hau egin dut Eibarko taldea lehenengo mailara igotzeko eta herri guztiak alaitasuna berreskuratzeko.

- Eskerrik asko, espero dut zorte handia ematea.

Asteak joan, asteak etorri, golak eta golak besterik ez ziren ikusten Ipuruan. Horrela, berriz igo zen lehenengo mailara eta festa giroa egon zen herrian.





LH 5-6

PELLO ARANZETA (J.A. Mogel Ikastola)

## Sagu gaiztoa

Jendeak uste du Halloweenek haurrak beldurtzen dituela, baina bada norbait oso ospetsua, askoz ere beldur handiagoa ematen diona: Perez sagutxo. Izan ere, Halloweeneko gozoki guztiek haurren ahoan amaitzen dute, hortzak garbitzea ahazten zaie, hondatu egiten zaizkie, eta saguak eraman behar ditueneko, hondatuta daude. Horregatik erabaki zuen Perezek munstroen lurraldera bidaiatzea hortz gaixoen erokeria hura geldiarazteko. Hala ere, munstroak ez zeuden prest haurrak lagunengana hurbiltzeko aukera bakarra galtzeko. Urteko beste edozein egunetan benetako munstro bat haur batengana hurbilduz gero zer? Perez sagutxoak ere ez zion uko egingo, eta Halloween festa bertan behera uztea erabaki zuen. Urte batean pentsatu zuen:

- Buelta emango diet hirietako bidea adierazten duten karteiei. Horrela munstroak galdu egingo dira.

Baina munstroek ez zieten karteiei begiratzen, irakurtzen ez zekitelako. Beste urte batean esan zuen:

- Badakit, milaka ardi gozo eramango ditut munstroek festarako gordetzen dituzten gozokiak jateko.

Eta lortu zuen. Ez zuten bat bera ere utzi, baina hainbeste gozo jan zituzten, ezen karameluzko ardi bihurtu baitziren. Munstroek hainbesteko arrakastaz banatu zituzten munduan, non Perez sagutxoak bere bizitzako hortz-uztarik txarrena izan baitzuen. Hurrengo aldirako, oso plan arriskutsua prestatu zuen.

- Kartzelatik ihes egiten lagunduko diet umeak gaizkien tratatzen dituzten munstro gaiztoenei. Hainbeste beldur emango dute inork ez duela Halloween gehiago nahiko.

Isilpean eta beldurrez hilda, Halloween gauean basati haiek askatu eta hirira lagundu zituen. Istilu handi bat sortzea espero zuen, baina iritsi zirenean eta mozorroak ikusi zituztenean, uste zuten festa sorpresa bat zela haientzat. Hain zorionsu eta hunkiturik sentitu ziren, ezen primeran portatu baitziren, eta orduak eta orduan eman zituzten





beren besarkada iletsuekin eta beren musu lerdenekin sagutxoak estaltzen. Hain onak bihurtu zirenez, inork ez zuen pentsatu berriro giltzapetuko zituztenik.

Huts egindako hainbat saiakerek etsiturik, Perez sagua bere ondasun guztiak gastatzeko prest zegoen.

- Azukre guztia erosi eta munduko ibai eta lakuetan botako dut. Gozokirik gabe ez da jairik izango.

Baina ez zekien sagutxoak munstroek beren gozoki-baratzeak zituztela, eta ur gezaz ureztatzean inoizko uztarik onena izan zutela.

Hurrek eta munstroek hainbeste maite zuten festa ezerk ezin zuela hondatu ikusita, agian apur bat aldatu besterik ez zuela egin behar pentsatu zuen. Eta munstroen gozoki-baratzeetan pentsatzean, ideia bat izan zuen... Gau baten ezkutuan hurbildu eta beste gauza batzuk landatu zituen: azukrerik gabeko gozokiak, frutak, pasta dentifrikozko gominolak eta hortzetako eskuila-zuhaitz bat. Munstroak hain ziren gordinak, ez zirela konturatu ere egin, eta hurrengo urterako gozoki poltsak prestatu zituztenean, Perezek landatutako produktu osasuntsuak sartu zituzten guztietan.

Planak arrakasta handia izan zuen; izan ere, gozokien artean hortzetako eskuila bat ikusi zuenean, haur bakar batek ere ez zituen eskuilatu behar izan, eta ezin izan zuen esan ez zuela eskuila aurkitzen. Horrela, munstroek festa salbatu zuten, hurrek gozokiak jan zituzten eta Perez sagutxoak gogoratu zituzkeen hortzik onenak jaso zituen urte hartan.

Eta gurasoei ere gustatu zitzaizen ideia. Horregatik, orain, Halloweenen banatzen diren opari eta gozo guztien artean, gero eta errazagoa da hortzetako eskuilak, fruta osasuntsua eta azukrerik gabeko gozokiak ikustea. Huts egindako hainbat saiakerek etsiturik, Perez sagua bere ondasun guztiak gastatzeko prest zegoen.

- Azukre guztia erosi eta munduko ibai eta lakuetan botako dut. Gozokirik gabe ez da jairik izango.

Baina ez zekien sagutxoak munstroek beren gozoki-baratzeak zituztela, eta ur gezaz ureztatzean inoizko uztarik onena izan zutela.





LH 1-2

ELGA ARIZNABARRETA (Eibar BHI)

## Euskara zaila dela diotenek...

Eibarren, 2022ko martxoaren 9an

Apa Yasmin!

Urte bat pasa da jada zu gurera etorri zinenetik. Urte konplikatu, berezi eta ezberdin bat izan delakoan nago. Azken finean zure etxea eta ingurukoak utzi behar izan dituzu arazo triste, zail eta larriengatik eta Euskal Herrira, konkretuki Eibarrera etorri zara, arazo horiek ekidin ahal izateko. Zoriontzekoa da denborada honetan egin duzun esfortzu guztia gure hizkuntzaren alde, eta harrিতuta utzi nauzu zure eboluzio eta hobekuntzarekin euskara mailan. Izan ere, ez du edonork zuk bezala lan egiten amore eman gabe zerbait lortzeko. Euskara zaila dela diotenek adibidez, ez dute zuk egin duzun ahaleginaren laurdena ere egiten euskara ikasteko. Aitzakia bezala esaten dute hori, hizkuntza hau ikastea ekiditeko. Egia da hizkuntza konplexua dela. Azken finean ez dakigu zein den euskararen familia, eta ondorioz hizkuntza honek ez du batere antzik beste batekiko. Horregatik, zaila egin daiteke ikastea. Hala eta guztiz ere, edozein hizkuntza barneratzeak zailtasunak ekar ditzake. Ohituta baikaude bakoitzak hitz egiten duen hizkuntzarekin komunikatzera, eta beste bat ikasterako orduan, ez diogulako ezerri zentzurik hartzen. Baina amore eman gabe eta jarrera positiboarekin aurpegia ematen badiogu zailtasunari, askoz ere errazagoa izango zaigu, ez hizkuntza berri bat ikastea bakarrik, baizik eta edozer gauza ikasi eta lortzea.

Eta aurretik aipatzen ari naizen guztiaren eredu argia zara zu Yasmin, eta berriro ere eskerrak horregatik. Horrela jarritu ezker gure hizkuntza aberasteaz gain, zure kultura maila aberastea ere lortuko duzu, eta hori gauza politenatariko bat delakoan nago.

Zu zaren bezalako gehiago nahi eta behar dira bizitza honetan, hizkuntza eta kultura ezberdin hauek mantentzeko eta hil ez daitezen.

Ze polita izango litzakeen gure hizkuntzaren petaloak usteldu beharrean gutako bakoitzak horiek ureztatzea!

Onena opa dizut Yasmin, eta ea laster ikusteko aukera dugun. Muxu eta besarkada handi bat.





LH 3-4

MALEN AGUIRREAMALLOA (La Salle Azitain)

## Euskara zaila dela diotenek...

Lagun maitea:

Euskara zaila diotenek badakite zer esaten ari diren? Gaur nire amamarekin nengoen eta euskara ikastea gustatuko litzaiokeela esan dit, baina euskara bezain hizkuntza zaila ikasteko oso heldua dela dio. Baina nik iritzia alda dezakeen istorio bat kontatu diot, istorio oso bitxia da eta.

Nire lagunak eta biok elkar ezagutu genuen modua berezia da. Hamaika urte izango genituen Eibarrera euskara ikastera etorri zenean; lehen astean oso gaizki pasatu zuen, ez zuen inor ezagutzen, familia desberdina, klase berria... Baina egun batean jangelan topo egin genuen eta bakarrik zegoela ikusi nuenean berarekin jarri nintzen, hizketan aritu ginen, eta euskara irakasteko esan zidan. Une horretan geldiarazita geratu nintzen, nik inoiz ez bainuen euskara-eskolarik eman, baina harengatik egingo nuen. Ez ziren klase serioak izan, euskara ikasten zuen filmak ikusten zituen bitartean, nire liburuak irakurtzen nizkion, nirekin euskaraz hitz egiten zuen... Pixkanaka euskara ikasten joan zen, eta orain, gezurra badirudi ere, elkar ezagutu genuen ikastetxean bertan ari da eskolak ematen.

Euskara ez da zaila, gehiago edo gutxiago kostatzen dakizuke, beste hizkuntza batekin alderatuz gero euskara zailagoa izan daiteke, baina dena beste hizkuntza batekin alderatzeko zalantzan dago, ezta? Zure helburua lortzeko gogoia baduzu eta ahalegintzen bazara, denborarekin lortuko duzu.

Jakin ezazu, nire amonarekin hitz egiten orduak eman ondoren, konbentzitu dudala euskara ikasten hasteko, hilabete batzuk barru espero dut hirurok geratzea eta euskaraz primeran hitz egin ahal izatea!

Espero dut zure erantzuna ikustea!

Muxu bat, zure lagun maitea.





# Amonaren Tiramisua

Oraingoan gozo eta postreen artean nire gustokoenetakoa ekarri dizuet: amonaren tiramisua! Denak txundituta uzteko modukoa... Izan gozo, gozatu eta on egin!

## OSAGAIK:

- 3 arrautza
- 3 azukre goilarakada
- Maskarpone gazta (Philadelphiak ere balio dezake)
- Soletila bizkotxoak
- Kafe hotza



## NOLA EGIN:

- 1.- Arrautz-goringoak ondo irabiatu azukrearen erdiarekin, euren bolumena bikoiztu arte.
- 2.- Pixkanaka nahastu gaztarekin.
- 3.- Zuringoak irabiatu azukrearen beste erdiarekin, eta dena suabe nahastu.
- 4.- Bizkotxoak kafearekin busti eta ontziaren hondoan jarri, eta kremaren zati batekin estali (nahi izanez gero txokolate beltz zatiak jar daitezke). Berriro beste bizkotxo kapa bat jarri gainera, baita krema ere. Gaina kakao hautsarekin estali.
- 5.- Hozkailuan sartu ordu batzuetan. Gomendagarria da bezperan prestatzea.



## XERRA AMERIKARRA

Hamabost minututan lau lagunentzat egiteko errezeta erraza. Beharko duzuen da, kilo erdi haragi xehetu, gatza, baratxuria, perrexila, bi arrautza, tipula, olio eta ogia barran. Haragiari gehitu gatza, baratxuria oso pikatua, perrexil xehatua, bi goringo eta, nahi izanez gero, tipula su eztitua. Dena nahastu pasta uniforme bat lortu arte, olio bota oso lehor gera ez dadin. Zerbitzatu ogitartekoan edo platerean. Hotzetan gorde, tomate eta letxugarekin lagundu dezakezue.

TI-TA



# Etxean egindako termometroa

Esperimentu honekin termometro bat nola egin ikasiko duzue. Oso erraza da, ikusiko duzue. Eta bitxia, oso bitxia.

## MATERIALA:

- 50 ml-ko botila
- Lastotxo gardena
- Plastilina
- Ura
- Artaziak



## NOLA EGIN:

- 1.- Egin zuloa artaziekin botilaren tapoian. Sartu hortik lastotxoa. Urak ihes ez egiteko plastilina apur bat jarri tapoian, lastotxoa inguratzuz.
- 2.- Bete botila erdia urez eta bota koloratzaile-tanta batzuk, gero esperimentuaren efektua argiago ikus dadin. Horrela, ura lastotxotik igotzean askoz hobeto ikusiko da.
- 3.- Itxi botila. Lastotxoa ura hasten den lekuraino iritsi behar da. Botila berotzerakoan, molekulak azkarrago mugitzen dira eta likidoa bultzatzen dute lastotxotik gora. Egiaztatzeko, ura ontzi batean berotu behar duzue eta botilan sartu. Magia! Ur beroa lastotxotik igoko da! Hor duzue termometroaren funtzionamendua.

## Tindatutako loreak

Esperimentu erraza eta oso deigarria duzue honako hau. Zuen kolorerik gustokoenekin tindatuko dituzue loreak, eta, bidez batez, landareek elikagaiak nola xurgatzen dituzten ere ikusi eta ikasiko duzue. Lorea zuriak beharko dituzue: krabelinak, bitxiloreak... Bete bote gardenak urez, 3-4 cm, bote bakoitzean bota 20 bat tanta kolorante eta sartu loreak bertan. Handik ordu gutxira kolorez aldatzen hasiko dira eta 24 ordura aldaketa are nabarmenagoa izango da.



**Txalopinak** 6 urtetik aurrera

"Haurra, kanta ezazu goizetik gauera eta biziko zara txorien antzera. Lai, lai, lai txorien antzera". Zaharberitutako kanta finak biltzen ditu Antton Kazabonen lan honek. Jokin Mitxelenaren ilustrazio bikainek janzten dute ipuintxoak.

**Irakurtzen ez zekien zakurra** 8 urtetik aurrera

Naroak liburuak zabaldu bai, egiten ditu. Baina irakurri? Ikasturtea hasi zenez gero ez dute ikusi irakurtzen. Eta apirilean gaude, egin kontu! Zergatik halako gorrotoa liburuei? Zergatik zabaltzen ditu txitxarroa erdibitzen den bezala? Liburuek planeta hondatzen dutelako!

**Marrakatxarra** 10 urtetik aurrera

Egun batean, eskolatik bueltan, aita sukaldean ari dela, Anderrek hiru mandarina hartu eta pasilloan barrena jo du malabarismoak egiten. Mandarinak eskuetan hartu eta jaurti, hartu eta jaurti eskuetan erabiliz, gurasoen langelaraino iritsi da, eta hantxe aitaren ordenadorearen mahaian ikusi du argazki bat, berria, lehenago inoiz ikusi gabea.

**BITXIKERIAK**

*Gizakion begiak 10 milioi kolore ezberdin bereiz ditzake.*



*Koalek bizitza osoa eman dezakete urik probatu gabe.*

*Pertsona batek batez beste 15 aldiz egiten du barre egunean.*





# 7 EZBERDINTASUNAK



Bidali erantzunak **EKAINAK 8** baino lehen  
...eta kitto! Euskara Elkarte - Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel. ....



Maialen Arrillaga

## AURREKO ALEKO IRABAZLEA

Aupa MAIALEN txapelduna! Aurreko aleko erantzunak bikain asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara irabazle. Ipuina eta ...eta kitto!-ren motxila zuretako! ZORIONAK!

# ZU BAI MARGOLARI!

